

Ebazpena: R043/2025
Espedientea: E014/2023

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 19a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea kide hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek; bada, hau erabaki dute:

ERABAKIA

Bizkaiko Foru Aldundiak (aurrerantzean, BFA) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren xedea baita zehaztea ea Administrazioako Estatu Agentziak eskumenik daukan tributukudeaketa bidez egiaztatzeko CYCASA CANTERAS Y CONSTRUCCIONES SAl (aurrerantzean, CYCASA; IFK: XXXXXXXXXX1) tributubetebeharpekoaren 2021eko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 14/2023 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- CYCASA entitateak Bizkaian du egoitza fiskala, eta eragiketa-bolumenaren proportzioan ordaindu zuen 2021eko sozietateen gaineko zerga. Zalantzarik gabe, BFARI dagokio ikuskapenak egiteko eskumena.

2.- 2022ko azaroaren 15ean, Zerga Administrazioako Estatu Agentziak prozedura bat hasi zuen tributukudeatzeko, egiaztapen mugatukoa bera, zergapekoaren 2021eko sozietateen gaineko zergarekin lotua, eta informazio/dokumentazio hau eskatu zion:

a) Egiaztatzeko zer jatorri eta kuantifikazio zuten "isunak, zehapenak eta bestelakoak" kontzeptuko galdu-irabazien kontuaren emaitzari aitortutako zuzenketak (gehikuntzak edo, hala badagokio, halakorik ez izatea).

a) Egiaztatzeko zer jatorri eta kuantifikazio zuten "dohaintzen eta liberalitateengatiko gastuak" kontzeptuko galdu-irabazien kontuaren emaitzari aitortutako zuzenketak (gehikuntzak edo, hala badagokio, halakorik ez izatea) .

c) Justifikatzeko zergatik egin zitzaion 14.775.383,62 euroko zuzenketa negatiboa galdu-irabazien kontuari.

Egiaztapenaren irismena hau zen:

a) Zergadunak ordaindutako zehapenei eta/edo errekarquei buruz dagoen informaziotik abiatuta, egiaztatzea zer zenbateko kontsignatu daitekeen gehikuntza gisa "isunak, zehapenak eta bestelakoak" kontzeptuaren zerga-oinarrian.

b) Zergadunak irabazi-asmorik gabeko entitateei egindako dohaintzei buruz dagoen informaziotik abiatuta (49/2022 Legea), egiaztatzea zer zenbateko kontsignatu daitekeen gehikuntza gisa "dohaintzen eta liberalitateengatiko gastuak" kontzeptuaren zerga-oinarrian.

c) Egiaztatzea zein den galdu-irabazien kontuari egindako 14.775.383,62 euroko zuzenketa negatiboaren jatorria.

3.- 2022ko azaroaren 24an, CYCASAk BFari jakinarazi zion zer jarduketa ari zen egiten Zerga Administrazioako Estatu Agentzia.

4.- 2023ko urtarrilaren 19an, BFAk inhibitzeko errekerimendua egin zion Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, foru-ikuskapen eskumeneko zergapeko bati kudeaketa-bidean egiaztapena egiteko eskumenari dagokionez.

5.- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak bere eskumena berronetsi zuen, isilbidez.

6.- 2023ko martxoaren 13an, BFAk eskumen-gatazka aurkeztu zuen, zeina 14/2023 espediente-zenbakiarekin izapidetu baita prozedura arruntaren bidez.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Ekonomia Itunaren 66.Bat artikulua arabera, Arbitraje Batzorderi eginkizun hauek esleitzen zaizkio:

«a) Estatuko Administrazioaren eta Foru Aldundien artean edo Foru Aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea.»

Horrekin bat etorriz, Arbitraje Batzordeak eskumena du zehazteko ea ZAEAk egiaztapen mugatuko prozedura batean erabilitako informazio-/dokumentazio-errekerimenduek gainditzten dituzten Ekonomia Itunak ikuskapen-eskumenik ez duen administrazioari ematen dizkion egiaztapen-ahalmenak.

2.- Arbitraje Batzordearen jarrera.

Arbitraje Batzordearen 19/2022 Ebazpenak (15/2016 gatazkari buruzkoak) jada esplikatu zuen ezen, nahiz eta partekatua edo konkurrentea den zergak proportzioan ordaintzen dituzten zergapekoen gaineko tributu-kudeaketaren eskumena, Ekonomia Itunak lankidetzarloan izan duen bilakaera tributu-kudeaketaren prozeduraren erreformaren aukakoa izan dela, eta, beraz, Itunaren interpretazio integratzaileak zera ulertzera eramango gintuzkeela: *«aldi bereko kudeaketaren bidezko egiaztapenaren eskumena 1963ko Zergei buruzko Lege Orokorrean arautzen zen xedea eta irismena zuena dela, eta, gehienez ere, 25/1995 Legean araututakoa, hori baitzegoen indarrean orain indarrean dagoen Ekonomia Ituna 12/2002 Legearen bidez onartu zenean, ez ordea tributuak kudeatzea, indarrean dagoen 58/2003 Legean ulertzen den moduan, eta, bereziki, ez egiaztapen mugatuko prozedurak egitea, baldin eta garatutako jarduketan irismen material eta geografikoagatik, eta kontuan hartuta egungo arauketak berak, ahal eta araubide juridikoan, ikuskapen-prozeduretara hurbiltzen dituela (ondorio preklusiborik eragiteak agerian uzten duen moduan, datuak egiaztatze prozedurek ez bezala, adibidez,), egoera astunak eragin baditzakete zergadunentzat, beren betebeharrak betetzean, edo eragina izan badezakete administrazio eskudunaren ikuskapen-jarduketetan, lehenago azaldu den moduan.»*.

Hori, nolanahi ere, bateragarria da Auzitegi Gorenaren ikuspegiarekin; izan ere, 2092/2015 eta 1965/16 epaietan, kudeaketa-jarduketan mugatzat ezartzen da beste administrazioaren lurraldean egindako eragiketen egiaztapena.

Kasu honetan, uste da ZAEAk diharduela Foru Aldundiaren ikuskapen-eskumena duen zergapeko baten gainean, Ekonomia Itunak aldi berean aitortzen dizkion tributu-kudeaketako ahalmenak gainditzen dituen likidazio-prozedura batean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea ZAEAk gainditu egin duela Ekonomia Itunak emandako kudeaketa-eskumena, CYCASAREN 2021eko sozietateen gaineko zergaren harira egindako egiaztapen mugatuko jarduketetan.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta CYCASA CANTERAS Y CONSTRUCCIONES SAr.

Izpta.: Violeta Ruiz Almendral.

Izpta.: Sofía Arana Landín.

Izpta.: Javier Muguruza Arrese.